

3. zk. / 2018

## Arreta Soziosanitarioko Buletina

Ekaina 2018

### ***Etika txertatzen dugu sozio sanitario eremuko jardueretan***

Euskadin arreta sozio sanitarioak, espazio komun baten eraikuntza planteatzen du. Zertaroko? Osasun eta gizarte zerbitzuak hornitzen dituzten erakunde guztiek koordinatuta egoteko, zentzu zabal eta barneratzaile batetan. Batez ere, zentzua eta antolaketa dakar pertsonen inguruan eta bereziki talde konkretuei dagokionez. Izan ere, aipatutako taldeek arrazoi konplexu eta desberdinegatik espazio honetan kokatzen dira prestazioen hartzalea gisa.

Esku-hartze sektorialak (giza eta osasunari dagozkionak) era sakabanatuau mantentzeak, erabat egiaztatutako arazo eta zaitasunak dakartha. Hori dela eta, justizia eta efizientzia printzipioen arabera, gaur egun koordinazio sozio sanitarioa hiritarrekiko konpromiso politiko eta asistentzial bat da. Eta arreta sozio sanitarioaren ideietan asistentziaren kalitateak indargune bat izan behar du.

Baina, soilik hitz egin dezakegu asistentziaren kalitateari buruz, pertsonen bizi kalitatea sustatzen dugunean ardatz bi kontuan hartuz: adierazle objektiboak eta kalitatearen pertzepzio subjektiboa. Izan ere, esanahia, balore eta bizitza pertsonalaren proiektuaren menpe daude.

Arreta sozio sanitarioan, gizakion bizitzaren oinarrizko alderdian eragiten dugu, hala nola: osasuna, intimitatea, gorpuztasuna, garapena, segurtasun emozionala, interakzioa, integrazioa eta gizarteratzea, babes mailak, erantzukizun pertsonala, ezbehar eta arazoen kontrola. Eta aipaturiko jarduerek, ondorengo betekizunak (integralitatea, personalizazioa eta jarraipena) betetzeaz gain, ikuspuntu tekniko eta etiko batetik zuzenak izatea; implikatuta dauden profesional eta erakundeentzat betebehar bat da. Izan ere, honen menpe daude hiritarren duintasuna eta eskubideak errespetatzea.



Kalitatearen arretak, beraz, baloreak aintzatestea exijitzen du, ez bakarrik zuzenketa tekniko edo eraginkortasuna baliabideen kudeaketa publikoan; beste balore batzuk ere aintzatetsi behar dira, hala nola; autonomia, sartzea, babes, gizarte eta ongizate pertsonala, konfiantza, errespetua edo dibertsitatea

Etika komiteak bide eta baliabide eraginkorrik izan daitezke deliberazio espazio gisa, kalitatearen kudeaketa honi babes emateko. Beti ere kudeaketa hori baloren kudeaketa bezala ulertuta eta gaur egungo testuinguru plural, eta kultura zein moral aldetik anitza dena.

Euskadin ibilbide handia daukagu egina etika asistentzialaren garapenean, hortaz etika komiteen inguruan, bai osasun eremuari begira bai gizarte zerbitzuei dagokionez. Beraz, bidezkoa iruditzen zaigu elkarlanean lan egiteko espazioa sustatzea, lana konpartitzeko protokoloak eta lan prozedurak bateratzeko. Horrela sinergiak sortuko dira, arreta sozio sanitarioaren kalitatean eraginez eta ondorioz pertsonen bizi kalitatean.

Ikuspegi hau aintzat harturik, Etika Komiteen Koordinazio Batzordea eratu da. Partaideak: Euskadin akreditatutako etika asistentzialeko batzorde eta gizarte esku-hartzea batzordeetako pertsonak.



Batzorde horren funtziak bestek beste ondorengoak dira: batzordeen arteko koordinazioa sustatzea bai osasun eremuan zein gizarte eremuan; protokoloak eta lan prozedurak bateratzea; informazio eta lankidetza plataforma bat sortu eta mantentzea eta txostenak zein dokumentuak zabaltzea. Dena den, oinarrizko funtziotariko bat prestakuntza jarduera eta etika alorrean ikerketa sustatzea da, unibertsitateekin eta beste erakundeekin lankidetzan arituz..



**2017-2020 Lehentasun Estrategiko Soziosanitarioetan** guztiz garrantzitsutzat jotzen da etikaren garapena bultzatzea, eta hori lortzeko jarduerak proposatzen dira prestakuntza ekimenenetan laguntzeko. Ekintza hauen barruan, beharrezkoa da aipatzea sozio sanitario eremuan etika asistentzialari buruzko unibertsitate titulazioa martxan jarriko dela, eta aurki errealtitate bihurtuko dela.

Azken urte hauetan, gizarte aldaketak etorri dira, aipaturiko aldaketek gugan ere eragina dute., hala nola, hobekuntzak egitea exijitzen zaigu eta osasun eta gizarte eremuan gure jarduerak egokitzea. Zertan datza egokitzapena? Etikaren ikuspegia txertatzea giza eta mediku zientzietan. Gainera, profesionalek nahiz euren erakundeek badituzte euren lanbideei berez datxezkien erronkak; etika aplikatua funtsezko lanabesa da, beraz, euren jardunaren bikaintasuna ziurtatzeko

Beraz, oinarrizkotzat jotzen da esparru honetako sentsibilizazio eta prestakuntzarekin jarraitzea.

**Lourdes Zurbanobeaskoetxea y Jose Antonio de la Rica  
EAeko Koordinatzaile Soziosanitarioak**

## Albisteak



**Denontzako aukerak: Jarduera-politika esparrua hazkunde inklusiborako**

[Gehiago irakurri...](#)



**Web gida: "Gizarte zerbitzuak, zure eskura"**

[Gehiago irakurri...](#)



**Lehenengo haurtzaroa: osasun eta ongizate egoeraren nazioarteko konparaketa**

[Gehiago irakurri...](#)



**Boluntariotzaren perfil Espainian: "Ekintza voluntaria 2017 urtean. Boluntariotzaren inguruaren biztanleriaren Espainiako akatsak eta iritziak"**

[Gehiago irakurri...](#)

## Albisteak




**2018 Spainia, perfil bat adineko pertsonentzat. Oinarrizko adierazle estatistikoak**

[Gehiago irakurri...](#)




**Adineko Pertsonen Estrategia Nazionala, Zahartze Aktiborako eta Tratu Onerako 2018-2021**

[Gehiago irakurri...](#)



**Ikusten ez den zainketaren aberastasunari buruzkoa**


[Gehiago irakurri...](#)



**Nazioarteko ikasgaiak etxebizitza arloan zainketak direla eta, Erresuma Batuko zahartzearekin erlazionatuta**

[Gehiago irakurri...](#)

## Albisteak



Gurutze Gorriko programen  
2014-2015 II Ahultasun sozial  
txostena Bizkaian

[Gehiago irakurri...](#)

The King's Fund Ideas that change health care

### Reimagining community services

Making the most of our assets

Zerbitzu komunitarioak  
birimajinatzen

[Gehiago irakurri...](#)



### 2017-2021 GIZARTERATZEKO IV. EUSKAL PLANA

Euskadi, Herri Inklusiboa

IV Gizarteratzeko Euskal Plana  
2017-2021

[Gehiago irakurri...](#)

**Editore Taldea**

Lucía Iñigo, Aitor Lopez de Aberasturi eta Catarina Paz

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Araudi Orokorean xedatutakoa betez, argitalpen hau bidaltzeko zein beste argitalpen batzuen berri emateko zure baimena eman diguzu.

Buletina jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, **baja hemen** eman dezakezu [coordinacionsoса@bioef.org](mailto:coordinacionsoса@bioef.org) helbidera idatzi ezkerro. Halaber, dagozkizun eskubideak erabiltzeko helbide honetara jo dezakezu: Eusko Jaurlaritza, Arreta Sozirosanitarioa, Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Informazio honetara iritsi zara eta interesgarria iruditu zaizu? **Buletin hau ere jaso eta Arreta Sozirosanitarioari buruzko informazioarekin egunean izatea nahi duzu?** Gure webgunean [alta eman dezakezu](http://www.euskadi.eus/sociosanitario/-/informacion/suscripcion-boletin-atencion-sociosanitaria/) esteka honen bidez: <http://www.euskadi.eus/sociosanitario/-/informacion/suscripcion-boletin-atencion-sociosanitaria/>